

## ARGI ZAKURRA

*Gizaldi luzeetan dabil gizona izadiak oindio ere ezkutuan dauzkan ainbat ixil eta fenomenu azalerazi nairikan. Goi eta be, oietakoz inguruturik gaude: abere, landare, ur ta lur, ortzian, oinpean,, Eguratseko agerkariak, tximist, oiñaztu ta abar, baserrian bizi garanok obeki ezagutzen ditugunik, ezin dezake iñortxok ere ukatu.*

Doiñu: 5/5, 5/3.

Bart illuntzean Jone emaztea  
eldu zitzaidan lasturik;  
ortuan zala, etxerakoan,  
argia zuen atzetik.

Garraxiz zion: «Ona etorritz,  
sugar bizia saltoka  
izan dut gibel, eta biotza  
jarri dit bira-biraka».

Nik azkar nion egia azaldu,  
beretzat aitu eziña;  
neroni ere bein eta berriz  
gertatua zait berdiña.

Anitz eratan eme oi zaigu  
erretzen ez dun argia.  
gau-itzaletan gabiltzanean  
izutzen gaitun zuzia.

Iltegi, ur loi, potzu, istinga,  
naiz arrain, badago usteltzen,  
lurriña gorantz darielarik  
gauetz oi dira egoten.

Baserrían maiz oiñetakoak  
—abarka ala oski zauli-  
azpin dugun zikin artean  
errez oi ditugu íraulí.

Sats naiz ustelez oiñetakoak  
euki ezkeru loiturik,  
ta lur gaiñean oiñak ipiñi,  
sugarra duzu ondotik.

Orrek euskeraz badu izena:  
ustel lurriña erretzen  
sugarrez baldin iñoiz ba zaizu,  
argi zakurra da deitzen.

Ez du berotzen, ezta erretzen,  
baiña ederki bildurtzen.  
Nere andrea orrek jarri zun  
biotza bira-biratzten.

## SUAREN IGURTZIA

*Lanari ekin bear zaio baserrian; baiña izan oi dira asti  
une ederrak ere load ta atsedenari emateko. Baita neguan,  
sendiko guztiok elkar supazter goxoko giroari berea  
emanaz, kontu-kontari ordu lillurakorrak igarotzeko ere.  
Guk, senar-emazteok, geure amona atsegintsua ta umeak bi-  
ran ditugula, orrela egin oi dugu sarritan.*

«Maritxu, nora zoaz,..».

Ume ta gurasoak emen bildu gara,  
otz-erpatik igeska gauden naierara.  
Naro gauden ementxe otzetik urruti,  
ta bebilkigu sua txinpartaka jori.